

FUNTSEZKO JARDUERAK

Edozein negozio-eredutan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira enpresak ondo jardun dezan. Funtsezko jarduera hauek ezinbestekoak dira balorezko proposamenak egiteko, bezero potentzialarenbaga iristeko, bezeroekiko harremana eraginkorra izateko eta diru sarrerak izateko.



Gure enpresaren funtsezko jarduera ekoizpena izango litzateke, hau da, diseinu pertsonalizatuz apaindutako ontziak diseinatzeko, ekoizteko eta entregatzeko betekizunak egingo ditugu: Tupperrak erosi, hauek bezeroen gustora apaindu eta bateria jarri.

Honez gain, garrantzitsua da enpresaren web orria eta online denda kudeatze mantentzeko jarduera.

- Ontzien pertsonalizazioaz Haizea arduratuko da. Bezeroek aukeratzeko diseinu ezberdinak prestatu beharko ditu: marrazki ezberdinak, hainbat kolore aukerarekin, idatzietarako letra mota ezberdinak... Honez gain, proposatutako diseinuak digitalki tuperretan iruditako ditu zenbait aplikazio informatikorekin. Hauek ondoren, webgunean ipiniko ditu bakoitzak duen prezioarekin batera. Webgunearen mantenimenduarekin ere berak jardungo du, eskaera berriak kontrolatuz etab.

- Saioak kontuen administrazioa eramango du. Elkartuko garen enpresekin kontaktatu eta heurrekin prezioen inguruko akordioak egingo ditu. Gure diru sarrerak ere berak kontrolatuko ditu eta kontuak egingo ditu. Ditugun gastu eta sarrerak, lehengaiak erostean lor genitzakeen beherapenak etab. bere esku daude.

- Bestetik, gure taldekide Norak bateriak jartzeko abilezia du. Produktuari berezitasuna emango dion bateria ezarriko dizkio. Ontziak forma eta tamaina desberdinetakoak izango direnez, kasu bakoitzean egokien izango den bateria ezarri beharko du.

Bezeroekin harremanetan jartzeko Nehia arituko da. Sare sozialetan abila da eta beraz, Instagram eta FaceBook bidez jasotako eskaerez bera arduratuko da. Gainera, haietatik zalantzak erantzungo ditu eta webgunean adierazitako produktuen informazio guztia sare sozial hauetan ere ipiniko du. Telefono dei eta korreo elektronikoak bere esku egongo dira.